



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE1 (B2 maila)

PROBA IDATZIA

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra
- Denbora: **3 ordu.**

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Orain, grabazio bat entzungo duzu. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik, galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Gero, galderen erantzuna markatu behar duzu erantzun-orrian.

1. atala

1.- Esatariak dioenez, zergatik desagertu zen euskal balea?

- a) Gizakiaren presioagatik.
- b) Janaria urritu zelako.
- c) Itsasoko urak berotu egin zirelako.
- d) Gaixotasun bat jasan zuelako.

2.- Zenbat denboran ehizatu zen hemen balea mota hori?

- a) Urte batzuetan.
- b) Makina bat mendetan.
- c) Ez dago daturik.
- d) Ehun bat urtean.

3.- Zer balea motari esaten zitzaion euskal balea?

- a) Kantauri itsasokoari.
- b) Ozeano Barekoari.
- c) Karibe ingurukoari.
- d) Europako itsasokoari.

4.- Nolakoa zen euskal balea?

- a) Laburra eta gizena.
- b) Luzea eta gizena.
- c) Luzea eta meharra.
- d) Laburra eta meharra.

5.- Zer beste ezaugarri zituen balea horrek?

- a) Oso bizia zela.
- b) Igerilari txarra zela.
- c) Hilda gero ur-azalean geratzen zela.
- d) Oso oldarkorra zela.

2. atala

6.- Zerk errazten zuen balearen ehiza?

- a) Oso animalia berezia izateak.
- b) Baleakumea hiltzeak.
- c) Neguan erdi-lokartua egoteak.
- d) Ernaldiak oso motzak izateak.

7.- Balea mota guztiek presio berdina jasan al zuten?

- a) Euskal baleak, txikiagoa.
- b) Beste mota batzuek, handiagoa.
- c) Forma aldetik, berdina.
- d) Ondorioetan, berdina.

8.- Noizkoak dira euskal balearen arrantzaren lehen berriak?

- a) Orain dela 2.000 urtekoak.
- b) X-XII. mendeetakoak badaude.
- c) Data garbirik ez dago.
- d) Ez zuten inongo arrastorik utzi.

9.- Zergatik jo zuten iparraldeko itsasora euskal arrantzaleek?

- a) Euskal balea asko urritu zelako.
- b) Han hobeto ordaintzen zutelako.
- c) Hango espezieak handiagoak zirelako.
- d) Heroiak izateko aukera ematen zirelako.

10.- Zergatik egin zuten atzera euskal arrantzaleek?

- a) Lanbide horretarako jenderik ez zutelako.
- b) Ezin zirelako lehiatu beste arrantzaleekin.
- c) XVIII. menderako aberastuta zeudelako.
- d) Balea urdina hemen gustukoa ez zelako.

Iturria: *Euskadi Irratia*



2. IRAKURMENA

Bizar Urdin

Ehun Urteko Gerra esaten zaio XIV. eta XV. mendeetan Ingalaterrak eta Frantziak izandako borrokari. Gatazkaren sorreran, hainbat gertaera daude; horien artean dago Frantziako tronurako ondoretza. Gerrak etenaldiak izan bazituen ere, ehun urte baino gehiago iraun zuen. Historialari gehienek 1337an kokatzen dute hasierako data, eta 1453an bukaerakoa, baina XII. mendera arte ere atzera omen daiteke gatazkaren hasiera.

Bretainian kokatu beharra dago kontakizun hau: 1432. urtean, Frantziaren eta Ingalaterraren ...**11**... Ehun Urteko Gerra betean (berez 116 urte iraun zuena). Urte hartan, Gilles de Montmorency-Laval (Raiseko baroia), geroago Bizar Urdin ezizenaz ...**12**... egingo zena, mariskal izendatu zuten gudu-zelaian egindako zerbitzuen ...**13**... .

Frantziako noble familia nagusietako eta aberatsenetako baten oinordekoa zen, eta handik gutxira, aitona hil zenean, ...**14**... haiekin nahi zuena egiteko aukera izan zuen. ...**15**..., gerrak Gilles de Raisen izen ona eta ondasunak areagotu zituen. Frantziako gizonik ...**16**... zen orduan, Joana D'Arc-en jarraitzaile sutsua, oso fededuna, jantzia, musikazale ...**17**..., eskuzabala. Baina, gaur egun historiako hiltzaile krudelenetakotzat jotzen da.

Gaur egungo psikiatren esanetan, Gilles de Raisek joera psikopatikoak edo eskizofrenia larria zituen ...**18**... . Muturreko oldarkortasuna baliagarria izan zitzaion gerra kontuetan, eta bizimodu zibilean ondasunen bidez ...**19**... lortu zuen krimenak estaltzea. Baina ez betiko, gero ikusiko dugunez.

Plazera lortzeko, dirutza ...**20**... zuen baroiak. Esaterako, Poitierseko gudua antzetzeko 150 aktore kontratatu eta 80.000 koroatik ...**21**... gastatu zituen. Baina plazerik handiena haurrak eta gazteak –6 eta 18 urte bitartekoak– bahitzen, bortxatzen, torturatzen eta hiltzen lortzen ...**22**... zuen, eta horretan ere ahalegin guztiak egin zituen. Hark eta haren zerbitzariak ia Bretainia osoa zeharkatu zuten hiltzailearen ...**23**... gaztetxoak “biltzeko”. Batzuetan indarrez eta ...**24**... engainuz –biktimei nahiz gurasoei etorkizun oparoa aginduz– eramaten zituzten Tiffaugeseko gaztelura. ...**25**... 1432tik 1440ra arte iraun zuen, eta zortzi urte horietan Bretainian 1.000 haur eta gazte ...**26**... desagertu omen ziren.

Inguruko haurrak gutxitu ziren bezala, Gilles de Raisen dirutza ...**27**... urritzen hasi zen. Bere buruaz gain, inguruko asko porrotera eraman zituen, eta salaketen ...**28**... Nanteseko gotzainarengana iritsi zen. Bere luxuzko bizimoduari ...**29**..., lurrak, etxeak eta gazteluak saltzen hasi zen, eta halako batean, geratzen zitzaizkion azken gazteluetako batean, ...**30**... askoren arrastoak topatu zituzten. Raiseko baroia 1440ko irailaren 15ean ...**31**... zuten. Torturapean eta buru-nahasmenduek eraginda, handik ...**32**... bere krimenak aitortu zituen. Urriaren 26an urkamendian hil zuten.

Haren bizar beltzak dirdai urdinxkak omen zituenez, “Bizar Urdin” ...**33**... zuen heroi hura krudeltasunaren paradigma bihurtu zen ...**34**... . Esan beharra dago 1697an Charles Perraultek idatzi zuela “Bizar Urdin” ipuin ezaguna, serieko hiltzaile horretan oinarrituta. Kasu hartan ere, errealitateak fikzioa erraz ...**35**... zuen.

Nagore Irazustabarrena, Argia 2345. alea, 2012-11-18 (moldatua)

11- a) mailako b) arteko c) berezko d) gaineko	12- a) ezagun b) txertatu c) eredu d) bizardun	13- a) alde b) ondoan c) bidez d) ordainetan	14- a) balore b) ondasun c) kontu d) bertute
15- a) Halere b) Gainera c) Horregatik d) Ondorioz	16- a) aztertuenetakoa b) gorrotatuenetakoa c) miretsienetakoa e) setatienetakoa	17- a) amorratua b) harroa c) sendoa d) hutsa	18- a) sakon b) noizbait c) aldean d) seguruenik
19- a) soilik b) agian c) erruz d) poliki	20- a) irabazten b) xahutzen c) gainditzen d) garestitzen	21- a) gora b) gain c) erraz d) partez	22- a) al b) omen c) asmo d) ote
23- a) gustuko b) alboko c) familiako d) hurbileko	24- a) besteetan b) beste c) besteko d) bestean	25- a) Beroaldiak b) Izualdiak c) Aginteak d) Eguraldiak	26- a) multzo b) inozo c) inguru d) pilo
27- a) ere b) gainera c) bestela d) ustez	28- a) oihartzuna b) epaia c) sona d) haizea	29- a) esker b) eusteko c) nabarmentzeko d) ukatuz	30- a) gorpu b) diru c) zeregin d) istilu
31- a) baztertu b) gailendu c) atxilotu d) bilatu	32- a) gertu b) hilabetera c) hasita d) geroztik	33- a) ospea b) goitizena c) zama d) xarma	34- a) bat-batean b) derrigor c) aspaldi d) ezinezko
35- a) zapuztu b) irabazi c) marraztu d) gainditu			



Idatzi zure kodea:									
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--

3. IDAZLAN LUZEA

Honako bi gaien artean bat aukeratu, eta gutxienez 175 hitzeko idazlana osatu behar duzu.

Herriko istorio txikiak. Zure herriko udalak liburuxka bat atara nahi du herritarrek idatzitako istorio laburrez osatuta, eta zuk ere parte hartu nahi duzu, zeurea kontatzeko. **Horretarako, puntu hauek garatuko dituzu artikuluan:**

- Deskribatu zure umezaroko eta gaztaroko eskola eta kale-giroa.
- Alderatu orduko aisialdia gaurkoarekin.
- Aurreikusi eta komentatu, zure ustean, herrira geroak zer ekariko duen.

Liburutegiko plan berria. Zure ikastetxeko liburutegiaren erabilera bultzatu nahi duzue. Horretarako, "Gure liburutegia, erakargarri" lemapean gauzatuko duzuen kanpainaren berri emango duzue ikastetxeko web-orrian. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Deskribatu liburutegiko egungo egoera.
- Zehaztu zer ekimen berri izango diren (banakako eta taldekako irakurketak, musikaren laguntza, ipuinak irakurtzea).
- Zehaztu helburuak.

10.....

20.....

30.....

40.....

50.....

60.....

4. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek 100 hitz izan behar ditu, gutxienez.

Lapurretak eskolan. Zure ikastetxean zenbait lapurreta izan dira azken egunetan (bideo-kamara berria, irakasle batzuen dirua...). Horren aurrean, zentroko zuzendaria zarenez, barne-idazki bat idatziko duzu eskolako sarean. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Azaldu zer gertatu den.
- Zehaztu zer neurri hartu behar diren.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

20.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

30.....

ERANTZUN ZUZENAK

HE1: Ahozkoaren Ulermena (Euskal balea)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A	B	D	A	C	B	D	B	A	B

HE1: Irakurmena (Bizar Urdin)

<u>11</u>	<u>12</u>	<u>13</u>	<u>14</u>	<u>15</u>	<u>16</u>	<u>17</u>	<u>18</u>	<u>19</u>	<u>20</u>
B	A	D	B	B	C	A	D	A	B

<u>21</u>	<u>22</u>	<u>23</u>	<u>24</u>	<u>25</u>	<u>26</u>	<u>27</u>	<u>28</u>	<u>29</u>	<u>30</u>
A	B	A	A	B	C	A	A	B	A

<u>31</u>	<u>32</u>	<u>33</u>	<u>34</u>	<u>35</u>					
C	B	B	A	D					